



Añorgako oilasko biltzaileak dantzan, iaz.  AÑORGAKO JAI BATZORDEA

Añorgatarren Zemento elektrotzaranga bihar estreinatuko da

Bi asteburu hartuko dituzte Añorgako jaiak, eta, urteroko legez, jardueraz beteriko egitaraua prestatu dute, auzoko inor etxean geratu ez dadin.

 Sara Iburguren Etxeberria

Añorgako jaiak bihar hasi eta hilaren 16ra arte luzatuko dira, Karmen egunera arte, hain zuzen ere. Jai batzordeko Jon Altunaren hitzetan, «luze samarrak» geratu zaizkie festak aurtan, Karmen eguna asteartea izanda, aurreko bi asteburuak egitea erabaki dutelako. Gasteizko jaietako Zeldonen jaitsiera imitatuz, Añorgan,

Zementonen jaitsiera egin ohi dute, baina aurtan Zementonek aldaketaren bat izan dezake: «Herri antzerki batean hasi ziren Zementon frontoian kable batetik behera jaisten. Zementonek Cementos Rezola enpresako langile bat irudikatzen du, baina orain, enpresak lan erregulazioaren espediente bat ezarri nahi die langileei, eta borrokan daude

langileak. Agian, hori aprobetxatuz, Zementoni aldarrikapen bat gehitu behar diogu, eta igual, greban egongo da».

Izan ere, Altunaren arabera, Añorgaren erdigunea zen Cementos Rezola «langileak lan erregulazioaren espediente» jartzen dituen enpresa bat da gaur egun, «añorgatarrik hartzen ez duena». Beraz, horrekin desadostasuna adierazteko eta langileekin bat egiteko baliatuko dute Zementonen aurtengo jaitsiera. Hori arratsaldean izango da, baina goizean, oilasko biltzaileekin emango diote hasiera jaiari, 08:00etan. «Berez, ohitura da abiatu baino lehen, sanferminetako entzierroa ikustea tabernan, baina aurtan ez dute kointziditzen. Beraz, hori gabe konformatu beharko gara Añorgan», adierazi du.

Aurtengo berritasun nagusia Añorgan sortu duten Zemento elektrotzaranga izango da. Bihar arratsaldean aterako dira kalera, festak girotzera, eta arrakasta izatea espero dute.

Zikiroa, jaietako berezitasun bat

Zikiroa da jaietako jarduera izarrira, eta, iaz, lehenengoz, Añorgako bizilagunek prestatu zuten. Izan ere, orain arte, Zubietako kuadrilla bat arduratzen zen zikiroa prestatzeaz. «Iaz, oso ondo atera zen, eta jendea gustura geratu zen. Aurten ere dena prest dugu zikiroa guk prestatzeko. Zubietakoei atoa erosi diegu, eta guk hartu nahi dugu hemendik aurrera horren ardura», azaldu du. Lehengo urtean, 340 pertsona izan ziren zikiroa jaten, eta aurten ere 300 lagun inguru animatzea aurreikusten dute.

Urtero gai desberdin bat aukeratzeko dute, eta aurten, October Fest da Añorgako mozerro festarako pentsatu duten gaia

Altunak adierazi duenez, badago jendea soilik urtean behin joaten dena Añorgara, zikiroaren egunean, hain zuzen ere. «Zaharrak eta gazteak irteten dira kalera, eta oso giro berezia sortzen da. Normalean Añorgan agertzen ez den jendea orduan etortzen da, data seinalatua delako; urteko ekitaldi nagusia», nabarmendu du.

Gainera, mozerrotu ere egiten dira zikiroa jaten duten egun berean. Duela 26 urte egin zuten mozerro festa hori lehenengo aldiz, eta «zikiro bikingoa» izan zen lehen mozerro festa hori. «Hortik aurrera, tirolesa, pirata, pelikula... askotariko gaiak aukeratu izan ditugu. Urtero gai bat jartzen da, eta herri osoa gai horretaz mozerrotzen da», azaldu du jai batzordekoak. Aurten go gaia October Fest izango da, eta Altunak hainbat ideia proposatu ditu: «Jendea ez da originaltasunari lekua ematen ari, baina egunean bertan asko harrizten dute batzuek. Niri bururatu zait, pixka bat adarra jotzeko, saltxitxaz mozerrotzea, edo patata purez, bestela».



LARUNBATA 6

Kuadrillen eguna

08:00 - Auzoan zehar

Oilasko biltzaileak.

11:30

Paellak prestatzeko frontoiaren irekiera.

12:00

Paella prestaketa.

12:30

Oilasko biltzaileei ongietorria.

14:00

Kuadrillen arteko bazkaria.

16:00

Jasoketa eta argazki herrikoia.

16:10

Mus txapelketa azkarra.

17:30

Pilota goxoko finala.

Ondoren, frontenis txapelketaren finala.

Ondoren, barrene feminista.

19:00

Zementonen jaitsiera.

19:10

Bandera igoera Zementotxarangarekin.

21:00 - Jolas Etxean

Bokatak.

21:00 - Gaztetxean

Gazte afaria.

22:30

Olgetan erromeria. Ondoren DJ-ak.

03:00

Labezomorro erraldoia.

IGANDEA 7

Jubilatuen eguna

11:30

Meza nagusia.

12:15 - Elizan

Gure Kabia abesbatzaren emanaldia.

13:00

Artisau erakusketa.

14:00

Jubilatuen adiskidetasun bazkaria.

19:00

Arkaitz dantza taldeko haurren emanaldia.



OSTEGUNA 11

12:00 • Museoan

AñorgARTE erakusketaren inaugurazioa. The Ogracadaver artista añorgatarren grabatuak.

22:00

Monologoak.

OSTIRALA 12

Haurren eguna

10:00

Umeentzako joko eta puzgarriak.

10:00 • Museoan

Haur tailerra.

16:00 • Plazan

Ginkana eta puzgarriak.

Irutxuloko Hitza

17:00

Umeentzako merendola.

18:00

Mozorro festa prestaketa.

18:30

Erraldoi eta buruhandiak.

19:00

Erromeria Gabezin taldearekin.

19:30

Zezensuzkoa.

20:00

Mozorro *photocall*-a.

21:30

Orikiz mozorro festa. Ondoren, erromeria Gabezin taldearekin.

23:00 • Gaztetxean

Kontzertuak: Zaparra eta The Riff Truckers.

LARUNBATA 13

Gaupasa eguna



11:30

Tiro txapelketa karabinarekin.

12:00

Bakailao lahiaketa eta sagardo dastaketa.

18:30

Erraldoi eta buruhandiak.

22:30 • Plazan

Kontzertuak: La Txama, Herenegun eta Vaquillak zerek DJ-a.



IGANDEA 14

AKKE eguna

09:30

Diana Añorgako erraldoi eta buruhandiek.

18:00

Pilota partidak.

20:30

Bertso saioa:
Alaia Martin, Oihana Iguaran eta
Unai Gaztelumendi.
Ondoren, txapel jaurtiketa lehiaketa.

ASTELEHENA 15

Karmen bezpera eguna

18:00

Mute zirku teatroa.



19:00

Erraldoi eta buruhandiak.

19:30

Sardina jatea.

20:00 · Lekua lekua lekua

Txaranga.

ASTEARTEA 16

Karmen eguna

11:00

Meza nagusia.

13:00

Herri soka dantza.

14:30 · Jolas Etxean

Elkarteen arteko bazkaria.

17:30

Arkaitz Añorgako dantzarien emanaldia.

19:00

Kubara bidaia zozketa.

20:00

'Baxurde' jolasa.

20:30

Bokatak.

22:00

Bandera jeitsiera.
Jaien amaiera.



*Lukainkategi
jatetxea*

Aingeru Zaindaria Bidea, 85
20018 Donostia, Gipuzkoa

943-37 14 44

Ondo pasa jaiak!